

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

83/2026 Foru Agindua, otsailaren 18koa. Leza eta Navaridasko udalen elkarteko bitarteko izendapena duen Borja Pereiro Díez idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea, hura behin betiko bete delako

Maiatzaren 8ko 132/2019 Foru Aginduaren bidez, Borja Pereiro Díezen bitarteko izendapena egin zen, Leza eta Navaridasko udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

2026ko urtarrilaren 27ko EHAA (17. zk.), Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2026ko urtarrilaren 22ko agindua argitaratu zen, zeinaren bidez Aritz Oteiza Lasagabaster estatutako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen eskalako karrerako funtzionario izendatzen baita eta lehenengo destinoa esleitzen baitzaio Leza eta Navaridasko udalen elkartean.

2026ko urtarrilaren 29ko idazkiaren bidez, alkateak jakinarazi zuen funtzionario horrek 2026ko otsailaren 6an hartuko zuela kargua, eta une horretan lanpostua betetzen ari zen bitarteko funtzionarioa lanpostutik kentzeko eskatu zuen, aurre-aurreko ondorio datarekin, eta, hortaz, otsailaren 4ko 59/2026 Foru Agindua eman zen, zeinaren bidez kargutik kentzen baitzen Borja Pereiro Díez, 2026ko otsailaren 5etik aurrerako ondorioekin.

2026ko otsailaren 12ko idazki baten bidez, alkateak aipatutako jakinarazpena zuzendu zuen, eta lanpostuaz jabetzeko data 2026ko otsailaren 16a izango zela adierazi zuen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak honako hau xedatzen du egintzak errebokatzeari eta okerrak zuzentzeari buruzko 109. artikuluan:

1. Preskripzio epea bete ez den bitartean, administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete beren egintzak, kargak ezartzen dituztenak edo inoren kalterako direnak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapean edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa. 2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 56. artikulua ezartzen duenez, xedapen horren VI. kapituluaren aipatzen diren izendapenak egiteko eskumena duten organoek izendapena errebokatze eskumena ere badute. Artikulu bereko bigarren apartatuak ezartzen du izendapen edo errebokatzeko horiek egiten dituen organoak dagokion idatzoharra egin behar duela aipatutako errege dekretuaren 23. artikuluan adierazten den erregistro integratuan.

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 54. artikulua ezartzen duenez, lanpostua behin betiko hornitzeak, baldin eta lanpostua behin-behineko edo bitarteko funtzionarioak betetzen ari badira, automatikoki ekarriko du lanpostu hori betetzen ari zena kargutik kentzea.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietatik hirugarrenean xedatutakoari dagokionez Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak hamahirugarren xedapen iragankorrean agindutakoa betetzeko, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotako eskumenak betetzeko eta horien indarrez dagozkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ofizioz errebokatzea otsailaren 4ko 59/2026 Foru Agindua, zeinaren bidez kargutik kentzen baitzen Borja Pereiro Díez, 2026ko otsailaren 5etik aurrerako ondorioekin. Foru agindu hori interesdunaren aurkako egintza da; izan ere, azkenean, ez dago egun horretan kargutik kentzea justifikatzen duen arrazoirik.

Bigarrena. Borja Pereiro Díez Leza eta Navaridasko udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile lanpostutik kentzea 2026ko otsailaren 15etik aurrerako ondorioekin; izan ere, maiatzaren 8ko 132/2019 Foru Aginduaren bidez bitarteko izendapenez betetzen aritu izan da lanpostu hori, eta behin betiko izendapenaren bidez bete da.

Hirugarrena. Foru agindu hau dagozkion ondorioetarako jakinaraztea Leza eta Navaridasko udalen elkarteari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Jakinarazten den foru agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 18a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA